# SEGMENTAZIOA

Gure produktua, zorionez, ez dago xede publiko espezifiko edo zehatz bati eskainita. Oinarrizko teknologia ulertzen duen eta erabiltzen dakiten pertsonak“**Attraction Force”** menperatzeko gai izango da. Umeek, nerabeek, 8helduek eta pertsona nagusiek erabili ahal izanago dute.

Gure kolektiboak bakarrik ezaugarri sinple hauek izan behar ditu: teknologiara ondo moldatzen dakitenek (hala ere, ez da teknologia batere konplexua izango) eta arazoak dituztenek gauzak aurkitzeko edo horretan denbora gehiegi galtzen dutenek.




Hala ere, gure enpresak ez du azken bezeroarekin harremanik izango, baina gure zerbitzua enpresa handiei bideratuta dago eta enpresa hauek produzitzen dituzten produktuek gure txip-a integratuta izango dute. Beraz gure bezero zuzenak enpresa handiak izango dira.

Gure produktuak hainbat objektu ezberdinetan erabil dezakegu baina gure kasuan muga batzuk ezartzea erabaki dugu.

Horregatik gure produktua objektu hauetan integratuta joango da: Bizikletetan, giltzetan, maletetan, ordenagailuetan eta gps-a ez duten telefonoetan.

Gure enpresaren helburu handiena da txip-a produktua dokumentu ofizialetan jartzea (DNI-a eta pasaportea), baina horretarako gobernuarekin eztabaida bat izan beharko beharko genuke.